

TREBAKUNTZA 2016-06: MAIUSKULAK ETA MINUSKULAK

Udal idazki askotan letra larriak (maiuskulak) eta xeheak (minuskulak) oker idatzita ikusi ditugu (hilabeteetan, karguetan...).

Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *2006ko **Ekainean**, **Uda** hasieran, gertatu zen ezbeharra.
2. * Bilera egin dute **Alkateak** eta alderdietako ordezkariak.
3. *Espainiako **Erregeak** eztabaida izan du Venezuelako presidentearekin.
4. * Elkarretaratzea Donibane **Enparantzan** izango da.
5. * Leitzako **udalak** hainbat udaletako eredia jarraitu du.
6. * Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... **ordua** iristean, hizlaria ez zen azaldu.
7. *291/2005 **dekretua**, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako...

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **Hilabeteak, asteko egunak eta urtaroak** beti letra XEHEZ idatzi behar dira.
Ad. 2006ko **ekainean** (eta ez **Ekainaren*), **uda** hasieran (eta ez **Uda*), gertatu zen ezbeharra.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

2. **Kargu ofizial eta akademikoak** beti letra XEHEZ. Salbuespenak: Arartekoa eta Lehendakaria.

Ad. Bilera egin dute **alkateak** eta alderdietako ordezkariak (eta ez **Alkateak*).

3. **Tituluak** beti letra XEHEZ.

Ad. Espainiako **erregeak** eztabaida izan du Venezuelako presidentearekin (eta ez **Erregeak*).

4. **Leku-izenetan**, izen propioa letra LARRIZ eta izen arrunta XEHEZ.

Ad. Elkarretaratzea Donibane **enparantzan** izango da.

5. **Instituzioen izen ofizialak** singularrean larriz eta pluralean xehez:

Ad. Leitzako **Udalak** hainbat **udaletako eredia jarraitu du**.

6. **Etendura puntuak**, esaldiari bukaera ematen badiote, ondoren datorrena letra LARRIZ.

Ad. Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... **Ordua** iristean, hizlaria ez zen azaldu (eta ez **ordua*).

7. **Dekretu, lege eta erabaki** jakinak badira, LARRIZ; aipamenak badira, XEHEZ:

Ad. 291/2005 **Dekretua**, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako... (eta ez **dekretua*).

Ad. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi zuen 2000ko **dekretua** (eta ez **Dekretua*).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99